

ALDARRIKAPENA FORUKO UDALAK

Utzi pakean, pakean dabilenaei. Hitzak adierazten duen bezala, komunikabidea, komunikatzeko bide bat baino ez da. Lurreko planetan bizia duten guztiak komunikatzen dira, guk euskeraz baino ez genuen egiten, «Egunkaria» bidez. Herriaren aurrerapen eta garapenerako, geure hizkuntza landuz, milaka urteko euskara beneragarria, bitxi preziatua gugandik. Amaitutzat eman ditzazue epai hau eta ez gehiago bortaxatu gure gurasoengandik jaso duguna ondorengoei utzi behar diegu eta.

FORUKO HERIAREN MEZUA EUSKALTZAINDIAREN 90. URTEAURRENARI

Foruko herritarrentzat, Euskaltzaindiak irudikatzen du, erakundearen batek irudikatzekotan, euskal gizarte-egitasmoa bere osoan. Zazpi Euskal herrietako emakumezko eta gizonezko (29) euskaldunek osatzen duzue. Ikerketa eta berrikuntza uztartzen ari zarete, euskararen bizi-iraunpenerako oinarri sendoak jartzen. Herikotasunaren izardi bizigarri eta zientziaren zehaztasunaren hotza bikain uztartzen. Itzal eta begirune zabal duzue Euskaldunon eta Forutarron artean. Zorionak. Jarraitu bide hontatik.

Igor Duñabeitia, Foruko alkatea